



Herritar agurgarria,

Esku artean duzun hau ez da urteroko festetako programa. Nahiko genuke "beti-berdina" omen den egitaraua etxez etxe banatzerik bagenu. Zoritxarrez, bestelakoa da egoera eta irailaren 3ko herri-batzarrean hala berretsi zenez, aurten ez da festarik ospatuko Zaldibian.

Batzarrean elkartu ginen udal ordezkari, herriko eragileen ordezkari eta herritarrek benetan uste dugu ez dela festak egiteko momentua. Festek gaitzaren zabalpen arriskua biderkatzen dute eta herria berriro konfinatzeak badakigu zer dakarren, batez ere, herritar zaugarrienentzat. Horregatik, lerro hauen bidez, egun hauetan arduraz eta zentzuz jokatzea eta elkar babestea eskatzen dizugu.

Era berean, datorren urtera begira gaude eta badakigu urtero bezala festa egitarau anitza osatu nahiko dugula: musikariak, tabernak, mondejua, barrakak, bertsolariak, kirolariak... Esan beharrik ez dago kultur-kirol-aisialdi sektore hau, beste asko bezala kolpe izugarria jasaten ari dela eta biziraungo badu plazak eta aukerak eskaini behar zaizkiela.

Horregatik, azken asteetan lanean aritu gara festak bertan behera uztearen erabakiak sortuko dituen kalteak arindu asmoz programa bat osatzeko. Esku artean duzun hau da hain justu.

Ziur gaude, hala aitortu digutelako, kultur eta kirol mundutik bizi direnentzat lagungarri izango dela, txikitasunetik bada ere. Aldi berean, zaldibiarrontzat ere gozagarri izatea nahi genuke, luze doan egoera hau arintzen lagundu diezagun.

Ez dezagun atzerapausorik eman datozen egunotan. Elkar zaintzeko unea da eta segidan, elkarrekin herria egitekoa.

*Eztitxu Mujika Mariezkurrena
Zaldibiako Alkatea*

Urriak 15 eta 22, osteguna. **BURUARINAK egiteko tailerrak.**

Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 4. mailara bitarteko Zaldibiako haurrentzat. Tailer hauetan parte hartu behar duten haurrek kultur etxean eman behar dute izena, eta aldi berean, adierazi beharko dute zein modelo aukeratu duten. Oharra: haurrak arduradun batekin joan beharko dira.



- **Urriak 15, osteguna, 16:30etik 18:30era, LH 1. eta 2. mailako** Zaldibiako haurrentzat. Tailer honetan izena emateko epea: urriaren 5etik 9ra
- **Urriak 22, osteguna, 16:30etik 18:30era, LH 3. eta 4. mailako** Zaldibiako haurrentzat. Tailer honetan izena emateko epea: urriaren 13tik 16ra.



Urriak 18, igandea, 18:00etan, **RESTI pilotalekuan** **ERRIMAK BI OINETAN ikuskizuna.**


HAATIK taldearen ikuskizunerako gonbidapenak, urriaren 13tik 16ra kultur etxean jaso daitezke. Lehenengo bi egunetan Zaldibian erroldatuek izango dute lehentasuna.

Libe Sukia Garmendia zaldibiarrak ikuskizunean parte hartuko du.

Urriak 23, ostirala: 19:00 RESTI pilotalekuan **BERTSO SAIOA.**

Gonbidapenak, urriaren 19tik 23ra kultur etxean jaso daitezke. Bertso saio hau ZAPIAK BAT taldeak antolatu du, Zaldibiako Udalaren laguntzarekin. Lehenengo bi egunetan Zaldibian erroldatuek izango dute lehentasuna.

- Amets Arzallus
- Ane Zuazubiskar
- Jon Maia
- Nerea Ibarzabal



Urriak 30, ostirala, **RESTI pilotalekuan** **TXAN MAGOA eta ANDONI OLLOKIEGI bakarlaria.**

Gonbidapenak, urriaren 26tik 30era kultur etxean jaso daitezke. Lehenengo bi egunetan Zaldibian erroldatuek izango dute lehentasuna.

- 17:30ean: TXAN MAGOAREN ikuskizuna (haurrak arduradun batekin joan beharko dira)
- 22:00etan: ANDONI OLLOKIEGI bakarlariaren musika saioa.





**Azaroak 7, larunbata,
19:00etan,
RESTI pilotalekuan
GOZATEGI AKUSTIKOAN
kontzertua.**

Gonbidapenak, azaroaren 2tik 6ra kultur etxean jaso daitezke. Lehenengo bi egunetan Zaldibian erroldatuek izango dute lehentasuna.


**Azaroak 15, igandea,
18:00etan,
RESTI pilotalekuan
"TURISTREATZEN"
antzezlan.**

Trapu Zaharrak antzerki taldearen ikuskizunerako gonbidapenak, azaroaren 9tik 13ra kultur etxean. Lehenengo bi egunetan Zaldibian erroldatuek izango dute lehentasuna.



**Azaroak 20, ostirala,
22:00etan,
RESTI pilotalekuan
"ERIK eta WIN" ikuskizuna.**

Buhameak taldearen ikuskizunerako gonbidapenak, azaroaren 16tik 20ra kultur etxean jaso daitezke. Lehenengo bi egunetan Zaldibian erroldatuek izango dute lehentasuna.



Azaroaren 6tik 15era

Hugo eta Eusebioren OHE ELASTIKOAK egongo dira antzokiaren ondoko aparkalekuan.



OHARRAK

Udazkeneko programako ekitaldi guztiak indarrean diren osasun irizpideak betez garatuko dira. Zaldibiako Udalak bezala herriko eragileek ere errealitatearen arabera aldatuko diren jarraibideak beteko dituztela bermatuko dute.

Festetara bideratuta zegoen diru-poltsatik finantzatuko diren ekintzak dohainik izango dira, eta gainontzekoetan antolakuntzak zehaztutako prezio eta salmenta-puntuak ekitaldiari buruzko informazioan aurki ditzakezue.

Doakoa izan edo ez, ekitaldira bertaratzeko ezinbestekoa da gonbidapena lortua izatea. Ekitaldi bakoitzaren atalean zehazten da sarrerak noiz jaso ditzakezuen. Pertsonako 5 sarrera har litezke gehienez eta aforo mugatua egongo da. Soberan dauden gonbidapenak, ikuskizunaren egunean jarriko dira eskuragarri, ordu bete lehenago eskolaren aurrean.

Hauetaz gain, herriko eragileek nahiz Udalak antolatutako ekitaldi gehiago egon daitezke, eta bere garaian emango da horien berri.

Ekitaldi egunean sarrera ekartzeaz gain, honako irizpideak betetzea ezinbestekoa da:

- Gutxienez ekitaldia hasi baino 15 minutu lehenago bertaratu. Garaiz iristea eskatzen da, jendea bere eserlekuetara erraz joan dadin.
- Maskara jantzia izan beharko da uneoro.
- Eskuak garbituko dira sarreran eta irteeran.
- Ekitaldietan ezingo da jan edo edan.
- Antolakuntzak adierazitako eserlekuan eseri eta bere jarraibideak errespetatuko dira uneoro.
- Ikuskizunetarako sarrera haurreskolaren aldetik egingo da, eta irteera areto futboleko zelaiaren aldetik.
- Sarreran eta irteeran pilaketak ekidin eta distantziak errespetatu.



ZALDIBIAKO UDALA

(Gipuzkoa)